


Mayo 2002 ko Maiatza

Donostian ibiltzen gara.

Nolako mugikortasuna nahi dugu hirian?

Nos movemos por Donostia.

¿Cómo queremos la movilidad en la ciudad?



Hiriko neska eta mutilen

Adierazpena

Manifiesto

de los chicos y chicas de la ciudad



1. ENTZUNALDI PUBLIKOA DONOSTIAKO NESKA ETA MUTILEI 1 AUDIENCIA PÚBLICA A LOS CHICOS Y CHICAS DE DONOSTIA

Mayo 2002 ko Maiatza

Donostian ibiltzen gara.

Nolako mugikortasuna nahi dugu hirian?

Nos movemos por Donostia.

¿Cómo queremos la movilidad en la ciudad?



Hiriko neska eta mutilen
Adierazpena

Manifiesto

de los chicos y chicas de la ciudad



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Adierazpena

Gure ikastetxe, auzoetako talde edo Internet bidez Donostiako Mugikortasunari buruzko Entzualdi Publikoa izeneko proiektuan parte hartu dugun 150 neska-mutilek gure Udalarari jakinarazi nahi diogu, Adierazpen honen bidez, nolako gogoetak eta proposamenak egin ditugun elkarlanean aritu garen hilabete hauetan.

Gaur hemen egiten ari garen hau ez da batere arrunta, eta horregatik, aukera hau aprobetxatuko dugu zuei esateko Donostiako neska-mutilen nahia dela gure ahotsa denok entzutea eta Udaletxean aintzat hartzea.

Donostiako herritarren ia %15a 18 urtetik beherakoak gara, eta nahiz ezin dugun botorik eman, bete egin nahi ditugu herritar bezala dauzkagun eskubideak eta erantzukizunak. Zenbat garen alde batera utzita, garrantzitsua da Udalak gure iritzia kontuan hartzea guri ere eragiten diguten erabakiak hartzeko orduan. Gauzak guri garbi esatea eta gurekin batera aztertzea nahi dugu, Udaletxean toki bat izatea gure iritzia emateko eta gauzak ikusteko dugun modua beste herritar batzuei maila berean azaltzeko, ziur jakitea entzungo digutela eta gurekin lan egingo dutela, guk proposatzen duguna egin daitekeen ala ez ikusteko.

Proiektu honetan parte hartu dugun neska-mutilek elkar ikusi genuen lehenengo egunean uste genuena baino gauza gehiago trukatu ditugu, eta gure arteko desberdintasunek beste egoera batzuk ulertzeko eta adierazpen hau osatzeko balio izan digute. Entzualdi hau prestatzen eman ditugun hilabete horietan egin ditugun jardueri esker konturatu gara beste batzuekin parte hartuz ikasten dela parte hartzen, informazio egokia lortu behar dela, gure proposamenak arrazoia bidez azaldu behar ditugula eta zentzuzkoak izan behar dutela, ados jartzeko beharrezkoa dela elkarriketatzea eta elkarri laguntzea, eta horregatik, batzuetan beharrezkoa dela ados ez gauden zenbait ideia alde batera uztea,...

Alternatibak eskatu bai baina proposatu ere egiten ditugu. Hiriarentzat prestatzen diren proiektuetan parte hartu nahi dugu. Eskatu nahi dugu guri ere entzutea eta gure eskaerei konpromiso eta daten bidez erantzutea. Eta gauzak halaxe esaten ditugu, argi eta garbi, badakigulako Udalak eta zuk, Odón, gure Alkatea, oso kontuan izaten dituzuela gai horiek.

Konturatu gara erabakiak har ditzakegula eta denon artean eta denontzat konpromiso batzuk har ditzakegula. Proiektu honetan oso gustura hartu dugu parte, herri berean bizi arren elkar ezagutzen ez genuen askoren artean egin dugulako, eta seguru aski hemendik aurrera gu guztiok gehiago kezkatuko gara Donostian gertatzen denarekin. Gainera, gure lana Bartzelonako neska-mutilenekin alderatu ahal izan dugu, han ere lanean ari baitira beren Udalarari proposamenak egiteko. Antzeko arazoak ditugula ikusi dugu eta denok elkarrekin lan egin dezakegula horiei irtenbide bat bilatzeko.

Hilabete hauetan ikusi dugu zein zaila den ordezkari bezala aritzea, norberaren ideiak alde batera uztea eta zentroen arteko bileretan gure talde bakoitzak hartutako erabakiak defendatzea. Erabakiak hartzea ez da



batere gauza erraza, lehentasunak finkatzea esan nahi du, aukera desberdinen artean hautatzea. Uste dugu Udalean lan egiten duzuenok gauzak ongi egiteko, oso garrantzitsua dela herritarren arteko harremana gauza arrunta izatea.

Lan hau egin ondoren, adierazpen hau osatu dugu, eta hemen azaldutako guztiarekin bat gatozela senti dezakegu denok.

1. Nola ikusten dugu mugikortasuna Donostian

Gu guztiok Donostian barrena ibiltzen gara, mugikortasuna beti presente daukagu, egunero-egunero, eskolara joateko etxetik irteten garenetik bertatik, lagunekin elkartzen garenean, kirola egitera edo musikara joaten garenean,...

Gure bizimodua edozein izanik ere, mugitzeko beharra dugu, baina behar hori ez dugu modu berean betetzen, orain dela gutxi arte garrantzi gehiago eman zaielako irabaziak ematen zituzten lekualdaketei: ibilgailu bati esker lanean ari diren pertsonak.

Entzunaldi honekin lanean hasi ginen arte, oharkabea bezala egiten genuen beti, eta kezka bat baldin bagenuen, gure artean, etxean, etab. komentatzen genuen. Orain, leku batetik bestera goazenean, hainbat gauzetan erreparatzen dugu, lehen oharkabea pasatzen bagenituen ere, bai ongi eginak egoteagatik zein garrantzitsuak ziren ikusten ez genuelako, eta bai hobetu eta zuzendu zitezkeen arren hori egitea geure eskuetatik kanpo zegoela uste genuelako ere. Orain badakigu gauza asko dauzkagula esateko eta Udalak gure beharra duela. Gaur ikusten dugu gure proposamenak entzun egiten dituztela, espero dugu horiek kontuan hartzea, aztertzea eta denok Donostian barrena hobeto mugitzeko balio izatea. Nahi dugu gure ekarpenak lagungarri izatea gure hiria bizitzeko toki egokiagoa bihurtzeko, etorkizuna baldintzatu gabe, ingurumenarekin orekan.

Mugikortasunak gure hirian duen garrantziari buruzko ideia bat edukitzeko, gure lana egiteko erabili ditugun datu batzuk emango ditugu jarraian:

Gure hirian egunero egiten diren lekualdaketen (milioi erdia) ia erdiak (%43) oinez egiten dira.

Oinezkoa da Donostiako mugikortasunaren elementu nagusia.

Azken 14 urteetan 2.500 oinezko zauritu dira ibilgailu batek harrapatuta, eta are larriagoa dena, 71 hildako izan dira, hau da, trafiko-istripuetan gure hirian hiltzen diren guztietatik %45 oinezkoak dira.

Donostian herri barruko 21 autobus-linea ditugu, eta guztira 568 geltoki eta 27 milioi bidaiari urtean, eta horrek esan nahi du egunean 75.000 erabiltzaile direla.

13 km bide gorri dauzkagu.



Ulertu dugu mugikortasunaren gai hori zail samarra dela, denok eginkizun desberdinak hartzen ditugula une bakoitzean erabiltzen dugun garraio-bidearen arabera, eta zaila egiten zaigula besteez arduratzea eginkizun horietako baten barruan sartuta gaudenean (oinezko, txirrindulari, gidari,...). Sarritan ikusi dugu bolantearen aurrean doanari nekeza egiten zaiola txirrindulariari ulertzea, nahiz batzuetan hark ere bizikleta erabili, txirrindulariak ere ez dituela oinezkoak errespetatzen, nahiz hura batzuetan oinez ere ibili, oinezkoek ere ez dituztela seinaleek diotena betetzen, edo motoan gabiltzanean ere ez zaigula gehiegi axola espaloi gainean aparkatzea ...

Gure gogoeta-lana hiru atal handitan banatu dugu hirian mugitzen garen modua kontuan izanik: oinez, bizikletan edo garraio publikoan.



2. Oinez ibiltzean!

Badakigu oinez ibiltzea oso osasungarria dela, bai hiriarentzat, ez duelako kutsadurarik sortzen, eta bai oinez dabilenarentzat ere, baina askotan badirudi presa eta denbora-falta oztopo direla leku batetik bestera mugitzeko. Gainera, mugitzeko autonomiarik handiena oinezkoak du eta ariketa egiteko eta hiria ezagutzeko modu egokia da, hiria geureago eginez.

Gurea bezalako hiri txiki batean ibilbideak ez dira luzeak, eta askotan, denbora laburrean iristen gara gure helmugara. Ikusi dugu batzuetan, trafiko asko dagoenean, oinez lehenago iristen garela autoz edo autobusez baino.

Antzeman dugu Donostian oinezkoak tratu hobea jasotzen hasi direla; oinezkoentzako kale asko egiten ari dira, espaloiak zabaltzen... baina oraindik ahalegin bat egin behar da hori hiri osora zabaltzeko: Egia, Altza, Larratxo... Oinezkoentzat prestatutako kale horietan ibiltzea oso erosoa eta atsegina da.

Uste dugu inguru horiek, oinez ibiltzeko izateaz gainera, jolastu ahal izateko toki ere izan beharko luketela, lagunekin elkartzeko, guretzat ere topaleku izan beharko luketela. Badakigu oso zaila dela lasaitasuna bilatzen duen adineko batek egin dezakeen erabilera eta, esate baterako, patinetan ibili nahi duen gazte batena bateratzea, baina uste dugu denok zerbaitetan amore eman beharko genukeela kalea denontzat delako.

Konturatu gara hiria ez dagoela prestatu leku batetik bestera joatean denok aukera berdinak izan ditzagun: ezintasunen bat duten pertsonak, haur-kotxeak, adinekoak,... Oraindik badira oztopo arkitektonikoak, 2. ilaran aparkatutako autoen edo beste eragozpen batzuen ondorioz (motoak, hiri-altzariak,...) larriagoak direnak, espaloietan sartzen baitira, espaloi asko oso estuak dira, semafororik ez dago... Semaforoen denborak berrikusi egin beharko liriteke denok estuasunik gabe zeharka ditzagun eta itxaronaldiak ez daitezela luzeegiak izan. Ibilerraztasun-arauak betetzea nahi dugu, semaforo guztiek seinale akustikoak izatea, maila-aldaketak aldapen bidez, espaloi jarraituen bidez edo oinezkoen autoei baino garrantzi handiagoa emango dieten zebra-bide goratuen bidez konpontzea, eta denok errespetu handiagorekin jokatzea, batez ere zailtasunak dituzten pertsonekin.



Gu, gazteok, Donostiako neska-mutilok, ez gara seguru sentitzen ibilgailuen ondoan arrazoi batzuegatik: ez dira errespetatzen seinaleak eta trafiko-arauak, trafiko handieneko orduetan azkarregi eta axolagabeki gidatzen da eta udaltzaingoak ez du behar adina zaintzen arauak bete daitezela. Uste dugu udaltzaingoa bertan egotea garrantzitsua dela, herritarrak kontzientzia handiagoa izateko eta bideko segurtasun-arauak gehiago errespetatzeko, baina baita laguntza behar dugunean haiengana jo ahal izateko ere.

Leku-aldaketak oinez egiteko, onena lantokira edo ikastetxera oinez joateko moduko distantzia batera bizitzea da. Baina hori ez da aski, eta batzuk eskolatik hurbil bizi arren autobusez joaten gara, trafiko eta obra handiko inguruetatik pasatu beharra daukagulako. Beharrezkoa da, era berean, ibilgailuek abiadura moteltzea auzo guztietako kale nagusietan, ikastetxe eta kiroldegietatik hurbil,... oinezkoen pasaguneetan semaforoak izatea eta ongi seinalaturik egotea, autoek seinale horiek errespetatzea, espaloiak zabalagoak izatea, garbiak egotea, batez ere zakur-kaketatik garbi, zaratak eta keak gutxitzea, auzoak elkarrekin komunikatuko dituzten oinezkoen ibilbideak gehiago izatea,...

Uste dugu oinez ibiliz gero hobeto ezagutuko dugula hiria, autoan goazenean ez delako berdin gozatzen; gidatutako ibilbideak egin beharko lirateke hiria hobeto ezagutzeko.

Mugikortasun autonomoa nahi dugu, gure ekintzetara ondoan heldu baten laguntzarik behar izan gabe joatea; mugikortasun segurua nahi dugu, denok arauak errespetatzea, oinezkoarentzat seinale gehiago izatea, galduta bagaude non aurkitzen garen esango diguten kartel-mapak, jende gutxi ibiltzen den tokietan argi nahikoa izatea neska-mutilok seguru senti gaitezen gauzez irteten garenean,

Badakigu oinezko gisa ere zenbait axolagabekeria egiten ditugula eta garrantzitsua dela ditugun eskubide eta betebeharrak zein diren jakitea. Uste dugu garrantzi handia duela informazio garbia eta ulergarria edukitzea, denok arauak ezagutzea eta errespetatzea, oinezko izan, txirrindulari izan, garraio publikoaren erabiltzaile izan nahiz gidari izan.

3. Bizikletan ibiltzean!!



Garrantzitsua iruditzen zaigu bide gorrien kopurua handitzeko egiten ari diren ahalegina, baina uste dugu oraindik asko dagoela egiteko. Oso garrantzitsua da batzuk besteekin lotzea, hirian leku batetik bestera seguru joan ahal izateko.

Garraibide eroso, osasungarria, merkea, ekologikoa eta oso baliagarria da hiriko trafiko-arazoak gutxitzeko, baina uste dugu, gaur egun oraindik ere, arriskutsua dela bizikletan ibiltzea, honako arrazoiengatik: bide gorrien sarea amaitu gabe dago oraindik, loturak falta dira, txirrindulariak oztopo dira galtzada askotan, segurtasunik ez dago,.... Udalak ausartagoa izan beharko luke horri ekin ahal izateko eta herritar guztiak bizikleta gehiago erabiltzera animatzeko, garraibide alternatibo bihurtu arte, ez erdialdean bakarrik, baita hiri osoan ere.



Hasi gara jende dezente bizikletan ikusten, baina gehienak helduak dira. Guk batez ere asteburuetan egiten dugu, kirola egin edo ongi pasatu nahi dugunean; aste barruan etxean ez digute bizikletan ibiltzen uzten arriskutsua dela uste dutelako. Uste dugu benetako garraio bide bihurtzeko garrantzitsua dela ume-umetatik horrela erabiltzea, eta ondorioz, helduak izaten garenean ohitura bat izango da. Hori horrela gertatzeko, uste dugu bide gorrien sarean ikastetxeetarako ibilbideak ere sartu beharko lirakeela.

Bide gorriek ongi seinalaturik egon behar dute, eta lurraren koloreaz gain, uste dugu landare-hesi, soinu-banda, etab.en bidez bereizi beharko lirakeela, eta era berean, Paseo Berrian gertatzen den moduan, autoek bide gorrietan aparkatzea eragotzi beharko litzateke. Bizikleta aparkatzea zail samarra da, eta bizikletak aparkatzeko toki gehiago behar dira.

Bizikletari garraio bide bezala ikusten diogun alde txar bat euria da, eta hemen euri dezente egiten du. Egun horietarako, zoladura eta galtzadako seinaleak margotzeko erabiltzen den pintura hobetu beharko litzateke; oso irristakorra da, eta euria egiten duenean, bizikletek edo motoek oso erraz irrist egiten dute. Irriest egiteko, pintura hori marratu egin beharko litzateke, hurbileko beste hiri batzuetan egin duten bezalaxe.

Bizikleta erabili ahal izateko beste zailtasun bat da Donostiak auzo ugari dituela goialdeetan. Aldapak eragozpen ez izateko, komeniko litzateke igogailuak, eskailera mekanikoak egotea, edo bizikleta autobusera igo ahal izatea Aiete edo Altza bezalako auzoetara doazen lineetan.

Komeniko litzateke ikastetxeetan bizikletan ibiltzen erakustea, seguruago joateko zein arau bete behar den irakastea, eta era berean, helduek ere gu gehiago errespetatzea bakarrik eta gurasorik gabe goazenean. Askok uste dute gazteak garelako gauzak gaizki egin behar ditugula, beti arrazoia dutela eta guri kargua hartzea daukatela edozergatik eta edozein modutan.

Hilabete hauetan, nahaste handia izan da hirian Kontxako bide gorri berria dela-eta. Auto-gidari asko kontra daude, baina egia da igandeetan egin dituzten proba horietan, autoei bidea eragotziz, sekulako gozamina izan dela. Egun horietan eta Autorik gabeko Eguna bezalako beste batzuetan, kaleak handiagoa ematen du.

4. Garraio publikoa erabiltzean!!!



Gure hirian, garraio publiko garrantzitsua autobusa da. Uste dugu autoa baino hobea dela seguruagoa delako, merkeagoa, ez da hain kutsagarria eta ingurumenarekin errespetuz jokatzeko. Alde horretatik, oraindik hainbat gauza daude egiteko; teknologia berriei esker, energia berriztagarrien bidez gutxiago kutsatuko duten ibilgailuak eduki ditzakegulako.

Konturatu gara autobusen sarea hobetzen ari dela bai linea-kopuruan eta bai autobusen kalitatean ere. Oraindik kanpoaldeko auzoetako toki batzuetara iristea falta da eta kale estuen ondorioz autobus arrunt batek pasatzerik ez duen goialdeetako zerbitzua (San Roke, Aldakonea, etab.) hobetzea, edo beste linea pribatuekin egindako hitzarmenen bidez (Aiete, esaterako) zerbitzu hori betetzea. Gainera, uste dugu auzo batzuetako ordutegiak zabaldu eta maiztasunak handitu egin beharko lirakeela, gaueko autobus-zerbitzua ostiraletara ere zabaldu, eta talde eta gazteentzako prezio bereziak jartzea aztertu.



Autobusen kalitatea asko hobetu baldin bada ere, mugikortasun murrizta duten pertsonak, hala nola adinekoak, haur-kotxean umeak daramatzatenek edo erosketako gurditxoarekin doazenek, edo halaber, elbarritasun fisiko, psikiko edo sensorial bat dutenek, zailtasunak izan ohi dituzte oraindik ez dagoelako plataforma baxua duen autobus askorik. Pertsona horiek batzuetan denbora asko itxoin behar izaten dute berak igotzeko prestatua dagoen autobusa iritsi arte, eta azkenean autoa erabiltzen dute leku batetik bestera joateko... eta aparkatu nahi izaten dutenean, berriz, konturatzen dira ez dituztela errespetatzen berentzat gordeta eduki beharko lituzketen plazak.

Lineen seinaleak ere hobetu egin beharko lirateke; zutabeetako letrak oso txikiak dira eta ongi ikusten ez duten pertsonak zailtasunak izaten dituzte ikusteko. Autobusek informazio entzungarria eduki behar lukete ongi ikusten ez duten pertsonentzat eta planoek ere braille-z idatzita egon beharko lukete denek nola orientatu jakin dezaten.

Uste dugu autobusak lehenetsuna eduki behar duela jende asko daramalako eta ordutegi batzuk bete behar dituelako. Autobusentzako errailak, Urbieta eta San Martin kaleetakoak adibidez, ongi dabilta, baina autoek errespetatzen ez dituztenean, Zurriolan esaterako, oso gauza gutxitarako balio izaten dute.

Gure ustez oraindik gehiago hobetu beharko litzatekeen gauza bat autobus barruan goazenean heltzeko dugun modua izango litzateke. Helduek bezalaxe, txartel arrunta ordaintzen dugu, baina askotan, eta batez ere jende asko doanean, ez dugu nora heldurik aurkitzen barrak oso goian daudelako eta iristen ez garelako. Uste dugu aztertu beharreko gai bat dela, seguruago bidaiatzeko sistema bat bilatu behar delako.

Uste dugu gehiago jabetu beharko genukeela autobusak ere gureak direla eta autobusak erretzen direnean, eserlekuak hondatzen direnean edo leihoak marratzen direnean, denon kalterako dela. Uste dugu neurriak hartu beharko liratekeela horrelakoak egiten dituzten pertsonen aurka, egindako txarkeria hiriarentzako lanak eginez ordain dezaten.

Topoa oso eroso, segurua, azkarra eta puntuala iruditzen zaigun garraio-bide bat da.

Uste dugu garraio-gidak berrargitaratu beharko liratekeela eta umetatik hasi beharko litzatekeela erakusten garraio publikoa nola erabili, kotxe-tokietara bisitak antolatuz, garraio publikoa erabiltzearen garrantzia azalduz, denona dela esanez, errespetatu beharrekoa, nola jokatu behar den, gidariaren eginkizunak zein diren... izan ere, arazoak sortzen direnean ez dakigu nor duen arazoia, ezta norengana jo behar den ere. Gurasoek ere garraio publikoa erabiltzen ohitu beharko lituzkete beren seme-alabak eta horren erabilera on bat egiten.

Laburbilduz eta amaitzeko, Udaleri eskatzen diogu gure proposamenak aztertu ditzala, benetan uste baitugu Donostian mugikortasuna hobetzen lagundu dezaketela, eta gure hiria toki seguruago eta osasungarriago bat bihurtzen.

Donostia, 2002ko maiatza



Manifiesto

Los chicos y chicas que hemos participado desde nuestros centros escolares, grupos de los barrios o a través de Internet en el proyecto de Audiencia Pública sobre la movilidad en Donostia, queremos, a través de este Manifiesto, trasladar al Ayuntamiento las reflexiones y propuestas que hemos elaborado a lo largo de estos meses de trabajo común.

Esto que hoy hacemos aquí no es habitual y por eso queremos aprovechar la ocasión para deciros que los chicos y chicas de Donosti queremos que nuestra voz sea oída por todos y escuchada en el Ayuntamiento.

Casi un 15% de la población donostiarra somos menores de 18 años, y aunque no podamos votar queremos ejercer nuestros derechos y responsabilidades como ciudadanos. Más allá de cuantos seamos, es importante que el Ayuntamiento tenga en cuenta nuestras opiniones a la hora de tomar decisiones que también nos afectan. Queremos que se nos informe con claridad, que se nos consulte, que en el Ayuntamiento haya un sitio en el que podamos presentar nuestras impresiones y compartir nuestra forma de ver las cosas con otros ciudadanos de igual a igual, en el que sepamos que nos escucharán y que trabajarán con nosotros para ver si se puede realizar o no lo que proponemos.

Las chicas y chicos que hemos participado en este proyecto compartimos más cosas de las que pensábamos el primer día que nos vimos, incluso, las diferencias que hay entre nosotros nos han servido para comprender otras situaciones y completar este manifiesto. Con las actividades que hemos desarrollado durante estos meses para preparar esta Audiencia nos hemos dado cuenta de que a participar se aprende participando con otros, que hemos de informarnos bien, que nuestras propuestas deben ser razonadas y consecuentes, que para ponernos de acuerdo es necesario el debate y la colaboración, y que eso exige dejar en el camino algunas ideas que no son compartidas por todos.

Pedimos pero también proponemos alternativas. Queremos participar en los proyectos que se hagan para la ciudad. Pedimos que se nos escuche y se dé respuesta a nuestras peticiones con compromisos y fechas. Lo decimos así de claro porque sabemos que el Ayuntamiento y tú, Odón, nuestro Alcalde, sois especialmente sensibles a estos temas.

Nos hemos dado cuenta que podemos tomar decisiones y adquirir compromisos entre todos y para todos. Nos ha gustado colaborar en este proyecto porque lo hemos hecho entre muchos que no nos conocíamos aún siendo de la misma ciudad y seguramente ahora todas y todos nos sentimos algo más responsables de lo que pasa en Donostia. Además, hemos podido contrastar nuestro trabajo con los chicos y chicas de Barcelona que están trabajando desde allí para hacer propuestas a su Ayuntamiento. Hemos visto que tenemos problemas parecidos y que podemos trabajar juntos para buscarles solución.



Estos meses hemos comprobado lo difícil que es representar, dejar a un lado las ideas personales y defender en las reuniones intercentros los acuerdos adoptados por cada uno de nuestros grupos. Tomar decisiones no es nada fácil, quiere decir priorizar, elegir entre diferentes posibilidades. Creemos que para que desde el Ayuntamiento lo hagáis bien, es muy importante que el contacto con los ciudadanos y ciudadanas sea algo habitual.

Después de este trabajo, hemos podido completar este manifiesto de forma que todos nos sintamos identificados con todo lo que aquí exponemos.

1. Cómo vemos la movilidad en Donostia

Todas y todos nos movemos por Donostia, la movilidad está presente en nuestro día a día, desde que salimos de casa para ir a clase, al juntarnos con los amigos, al ir a hacer deporte o a música...

Sea cual sea nuestra forma de vida, tenemos necesidad de movernos pero esta necesidad no es cubierta de la misma forma porque, hasta hace poco, se le ha dado más importancia a los desplazamientos que producen dinero: personas que trabajan y lo hacen a partir de un vehículo.

Hasta que empezamos a trabajar en esta Audiencia, lo hacíamos de una forma casi rutinaria, y cuando había algo que nos preocupaba, lo que hacíamos era comentarlo entre nosotros, en casa, etc. Ahora, cuando nos desplazamos, nos fijamos tanto en cosas que antes nos pasaban desapercibidas porque están bien hechas y no valorábamos su alcance, como en las que pudiéndose corregir y mejorar, no creíamos que estuviera en nuestras manos hacerlo. Ahora sabemos que tenemos mucho que decir y que el Ayuntamiento nos necesita. Vemos que hoy se escuchan nuestras propuestas, esperamos que sean anotadas, analizadas y sirvan para que todos nos podamos mover mejor por Donostia. Queremos que nuestras aportaciones contribuyan a hacer de nuestra ciudad un lugar mejor para vivir, sin poner en peligro el futuro y el medio ambiente.

Para tener una idea de la importancia de la movilidad en nuestra ciudad vamos a dar unos cuantos datos de los que hemos utilizado para hacer nuestro trabajo:

Casi la mitad (43%) de los desplazamientos que se hacen en la ciudad cada día (medio millón) se hacen a pie.

El peatón es el elemento principal de la movilidad en Donostia.

En los últimos 14 años ha habido 2.500 peatones heridos tras ser atropellados y lo que es más grave, 71 muertos, es decir, un 45% del total de los muertos en accidentes de tráfico en el municipio son peatones.

En Donostia tenemos 21 líneas de autobús urbano con un total de 568 paradas y un total de 27 millones de viajeros al año, lo que da una media de 75.000 usuarios a día.

Tenemos 13 kms de carriles bici.



Hemos comprendido que esto de la movilidad es un tema complicado, que todos asumimos papeles diferentes según el medio de transporte que utilizamos en cada momento y que nos resulta difícil pensar en los otros cuando funcionamos en uno de esos papeles (peatón, ciclista, conductor...). Hemos visto que muchas veces a quién va al volante le cuesta comprender al ciclista, aunque a veces coja también la bici, que el ciclista no respeta a los peatones aunque a veces también vaya andando, que los peatones no respetan las señales, o que cuando vamos en moto no nos importa demasiado aparcar en las aceras...

Hemos dividido nuestro trabajo de reflexión en tres grandes apartados en función de la forma en que nos movemos por la ciudad: a pie, en bicicleta o en transporte público.

2. Cuando caminamos!



Sabemos que andar es muy saludable, tanto para la ciudad, porque no contamina, como para quién camina, pero muchas veces parece que las prisas y la falta de tiempo nos impiden ir andando de un lugar a otro. Además, el peatón tiene mayor autonomía de movimiento y es una buena forma de hacer ejercicio y de descubrir la ciudad haciéndola más nuestra.

En una ciudad pequeña como la nuestra, los trayectos no son largos, y muchas veces en poco tiempo hemos llegado al lugar de destino. Hemos comprobado que algunas veces cuando hay mucho tráfico se llega antes andando que en coche o en autobús.

Notamos que en Donostia el peatón empieza a ser mejor tratado; se están haciendo muchas calles peatonales, ampliando aceras... pero aún hay que hacer un esfuerzo por hacerlo real en toda la ciudad: Egia, Altza, Larratxo... Caminar por estas calles peatonales es muy cómodo y agradable.

Creemos que estas zonas además de para caminar también deberían ser zonas en las que podamos jugar, juntarnos con los amigos, espacios de encuentro también para nosotros. Sabemos que es difícil compaginar el uso de una persona mayor que busca tranquilidad, con el de un joven que por ejemplo quiere patinar, pero creemos que todos debiéramos ceder un poco ya que se supone que la calle es para todos.

Hemos observado que la ciudad no está adaptada para que todos tengamos parecidas posibilidades al desplazarnos: personas con algún tipo de discapacidad, coches de niños, personas mayores,... Sigue habiendo barreras arquitectónicas que empeoran por la existencia de coches aparcados en 2ª fila u otros obstáculos (motos, mobiliario urbano,...) que invaden la acera, estrechez de muchas aceras, falta de semáforos... Habría que revisar los tiempos de los semáforos para que todos podamos cruzar sin agobios y las esperas no sean demasiado largas. Queremos que se cumplan las normas de accesibilidad, que todos los semáforos tengan señales acústicas, que se salven los desniveles por rampas, con aceras continuas o pasos de cebra elevados que den más importancia al peatón frente al coche, y que todos seamos más respetuosos, sobre todo con las personas que tienen dificultades.



Nosotros los jóvenes, chicas y chicos de Donostia, nos sentimos inseguros ante los vehículos por varias razones: no se respetan las señales ni las normas de tráfico, en horas punta se circula con demasiada rapidez e imprudencia y no hay siempre la suficiente vigilancia de la policía municipal para hacer cumplir las normas. Creemos que la presencia de la policía municipal es importante no sólo para procurar que los ciudadanos estemos más concienciados y respetemos más las normas de seguridad viaria, sino también para poder contar con ellos cuando necesitemos ayuda.

Para que los desplazamientos sean cada vez más a pie, lo mejor es poder vivir a una distancia que permita acudir andando al lugar de trabajo o estudio. Pero esto no es suficiente, algunos vivimos cerca del cole pero vamos en autobús porque hay que pasar por zonas de mucho tráfico y obras. También es necesario que los coches reduzcan la velocidad en las calles centrales de todos los barrios, cerca de los colegios, polideportivos,... que los pasos de peatones tengan semáforos y que estén bien señalizados, que los coches respeten esas señales, que las aceras sean amplias, que estén limpias, sobre todo de excrementos de perros, que disminuyan el ruido y los humos, que se aumenten los itinerarios peatonales que comunican unos barrios con otros,...

Creemos que si se camina se conoce mejor la ciudad, cuando se va en coche no se aprecia de la misma forma; habría que hacer paseos guiados para conocer mejor la ciudad.

Queremos una movilidad autónoma, poder ir a nuestras actividades sin tener que ser acompañados siempre por un adulto; queremos una movilidad segura, que todos respetemos las normas, que haya más señales para el peatón con carteles-mapa que indiquen donde nos encontramos si estamos desorientados, que las zonas menos frecuentadas estén bien iluminadas para que chicas y chicos nos sintamos seguros cuando salimos de noche,

Somos conscientes que también como peatones cometemos imprudencias y que es importante conocer cuales son nuestros derechos y deberes. Creemos que es muy importante que tengamos información clara y comprensible, que todos conozcamos las normas, y que las respetemos, tanto si somos peatones, ciclistas, usuarios del transporte público o conductores.

3. Cuando vamos en bici!!



Nos parece importante el esfuerzo que se está haciendo para aumentar el número de carriles bici, pero opinamos que todavía hay mucho que hacer. Es muy importante que conecten unos con otros para poder ir de un lugar de la ciudad a otro con seguridad.

Es un medio de transporte cómodo, saludable, barato, ecológico y muy válido para evitar atascos en la ciudad, pero creemos que hoy por hoy, aún resulta peligroso circular en bicicleta por diversos motivos: la red de carriles no está terminada, faltan conexiones, el ciclista estorba en muchas calzadas, falta seguridad,... El Ayuntamiento debería ser más valiente para hacer esto posible y animar a todos los ciudadanos a que usen más la bici hasta hacer que se convierta en un medio de transporte alternativo, no solo en el centro sino en toda la ciudad.



Empieza a verse a bastantes personas moviéndose en bicicleta, pero en su mayoría son adultos. Nosotros lo hacemos sobre todo durante el fin de semana y como forma de hacer deporte o divertirnos; entre semana en casa no nos dejan ir en bici porque creen que es peligroso. Creemos que para que se convierta de verdad en un medio de transporte es importante que se utilice como tal desde que somos niños, así de mayores sería ya una costumbre. Para que esto pueda ser así, creemos que habría que incluir en la red de bidegorris las rutas a los colegios.

Los bidegorris deben estar bien señalizados, además de que se distingan por el color del suelo creemos que deben estar diferenciados por setos, bandas sonoras, ... y también habría que impedir que como ocurre en el Paseo Nuevo, los coches aparken en los bidegorris. Aparcar la bici es bastante complicado, se necesitan más aparca bicis.

Uno de los inconvenientes que le vemos a la bicicleta como medio de transporte es la lluvia, y aquí llueve bastante. Para esos días habría que mejorar los suelos y la pintura con la que se dibujan las señales en la calzada; es muy deslizante, y cuando llueve, la bici o la moto patina fácilmente. Para que no resbale, se debería rayar la pintura como hacen en otras ciudades cercanas.

Otra dificultad para poder emplear la bici es que Donosti tiene bastantes barrios en zonas altas. Para que las cuestas no sean un impedimento, estaría bien que hubiera ascensores, escaleras mecánicas, o que se pudiera subir la bici al autobús en las líneas que van a barrios como Aiete o Altza.

Estaría bien que en las escuelas nos enseñaran a circular en bicicleta, las normas que debemos cumplir para ir más seguros, y también que los adultos nos respetasen más cuando vamos solos sin nuestros padres. Muchos creen que porque somos jóvenes hacemos las cosas mal, que siempre tienen razón y que nos pueden llamar la atención por cualquier cosa y de cualquier forma.

Durante estos meses, ha habido bastante lío en la ciudad por el nuevo carril bici en la Concha. Muchos conductores están en contra, pero la verdad es que las pruebas que se han hecho los domingos cerrando el paso a los coches, han sido una gozada. Esos días y otros como el Día sin mi coche, la calle parece más grande.

4. Cuando utilizamos el transporte público!!!



En nuestra ciudad, el transporte público por excelencia es el autobús. Pensamos que es mejor que el coche porque es más seguro, más barato, menos contaminante y respetuoso con el medio ambiente. En este sentido aún quedan cosas por hacer; gracias a las nuevas tecnologías podríamos tener vehículos con energías renovables que contaminasen menos.

